

...eta

Kitto!

954 zkia.
2015-XII-11



Gabon giroan murgilduta



Recalde

Clínica Oftalmológica
Oftalmologi Klinika

Miopia, katarata eta prezbiziaren kirurgia
Begi lehorraren tratamendua



LOS ASZUN GODA

Dentistak

arat
Hortz-Klinika

ARRETA-ZERBITZU INTEGRALA

Hortz-osasuneko profesional taldea zure zerbitzura

Mutua, konpainia eta kolektibo handiekin itundutako zentroa...

Clinicas dentales UniverSalud

TORIBIO ETXEBARRIA, 4 - 1. esk. Tel: 943 20 18 51

RPS 04/02

IRAZABAL
clínica dental

Irribarreetan adituak
ESPEZIALITATE GUZTIAK

Julian Etxebarria, 12 - 1. Esk.
Tfnoa. 943 20 85 52
www.clinicairazabal.com

Errehabilitazioa

CRF AMOSTEGI



ERREHABILITAZIOA

- * Fisioterapia / Errekuperaketa funtzionala
- * Min-Unitatea
- * Inkontinentzia urinarioak
- * Kirol medikuntza
- * Ama izateko prestakuntza

Muzategi 2 (EIBAR) San Ignacio 2 (ELGOIBAR)
Tfnoa. 943 20 34 46 Tfnoa. 943 74 33 74

Estetika klinika

abontza
clínica estética

Dr. J. Ramón Fdez. Ciudad

MEDIKUNTZA ESTETIKOA

KIRURGIA ESTETIKOA

Egiguren, 6 - behea 943 206 044

RPS: 53/13

bista eder
clínica dental - hortz klinika

Asko dira
gure hortz-klinetara etortzeko arrazoiak

20.000tik GORA PAZIENTE
ASEBETE IZATEA DA HORIETAKO BAT

Bista Eder, 19 943 70 00 82

hortz-klínika
B. IZAGIRRE
clínica dental

EGUNERO

Untzaga, 5 - 4. Tel. 943 70 23 85

Fisioterapeutak

ANE MENDIA
970 Kolegiatu zbkia.

ARRAQUETA, 20
TEL: 943 53 06 42
ane_mendia@hotmail.com

FISIOTERAPIA ZENTRUA

EIBAR HORTZ KLINIKA CLÍNICA DENTAL

MAITANE G. IÑIGUEZ

Zerbitzu guztiak klinika berberan

San Agustín, 4 behea ezk. info@eibarclinicadental.com
943 537 076 - 688 884 808 www.eibarclinicadental.com

invisalign
Ikusten ez den ortodontzia

Ortodontzia ume eta helduentzat

M^a Dolores Olaizola Doktorea
RPS 195/11

EIBARKO ZENTRO MEDIKOA

Urkitu, 13 (Orbeako Dorreak)
Telf.: 943 120 200 - 943 425 706
www.martadoloresolaizola.com

Ginekologoak

M^a Jose Ruiz de Porres
DOKTOREA

- Bularren azterketa
- Minbiziaren azterketa prebentiboa
- Zitologia
- Baginako eta sabelaldeko ekografia
- Mamografiak
- Bularretako ekografia
- Nerabeentzako arreta
- Menopausiadunentzako arreta
- Dentsitometriak
- Haurdunaldiaren kontrola
- Kontrazepzioa

T. Etxebarria, 4 - 1. ezk. 943 20 28 57

Pedro Etxebarria Gisasola
DENTISTA

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara

EGUNERO

Calbeton 19 - 3. ezk. Tfnoa: 943 20 72 17

GASTESI
Hortz-Klinika
Ane Gastesi

Odontologia orokorra eta prebentziozkoa / PADI
Ortodontzia / Inplanteak / Laser Teknologia

Bidebarrieta, 10 - 2. eskuma 943 70 00 90

MIGUEL SEMINARIO
ZURIARRAIN ODONTOLOGOA

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Inplanteak

Bidebarrieta, 7 - 1. esk. 943-702896

ASTEAN ESANAK

"Erreforma sartu zenean hondamendiaz hitz egin zuten, itun guztiak erori eta estatu mailako soldatak iritsiko zirela. Uztailak 7 sonatuaren ondoren, ez da horrelako ezer gertatu. Soldatek beren hartan segitu dute: batez besteko soldata kostua, hilerio, 2.000 euro da Euskadin, eta urteotan ez da jaitsi"

(ROBERTO LARRAÑAGA,
CONFEBASK-EKO PRESIDENTEA)

"Europako turismo-gune handiena izateko jaio zen Marina d'Or, idilikoa behar lukeena, amesgaizto bilakatzen ari da. 2012a 232 milioi euroko zorrek inamaitu zuenetik, galerak bata bestearen atzetik kateatu ditu. 'Udan beteta eta neguan hutsik' zuen lelotzat guneak; ba orain hori ere ez. Langilekopuruak argi erakusten du: 2008an, 856 ari ziren lanean; 2012an, 234; eta gaur-gaurkoz, 80 baizik ez. Gerta ziezaiokeen onena gertatu zaio orain: Txinako Wanda taldeak hura erosteko interesa du"

(OIHAN VITORIA,
ZUTABEGILEA)

"Astelena Eibarko Katedrala da frontoi gustagarriena. Tolosako Beotibar nobleena eta Iruñakoa arriskugarriena pilotak aukeratzekoan, asko 'jaten' duelako materiala. Bilboko Bizkaia frontoia? Hori ez da frontoia, estadioa baizik"

(JUAN MARI JUARISTI 'ATANO XIII',
MATERIAL HAUTAGAIA)

"Profesional handiak ere nekez bizi daitezke egiten dutenarekin. Herr-musikak beti izan du horretatik. Orain dela 80 urte herri-musikariak iristen ziren herrira festak zirelako, eta etxe oneko amek alabak ganbaran gordetzen zituzten halako pertsonaiekin nahas ez zitezen. Picasso bera ere, zergatik da hain prestigiotsua? Bere obragatik, dudarik gabe, baina baita haren obragatik ordaintzen denagatik ere"

(RUPER ORDORIKA,
ABESLARIA)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

KOSTATA.- Ahalegin handia eginda. "Halakoren batian, kostata abar luak hartu eban".

KOSTIA KOSTA.- Kosta ahala kosta. "Kostia kosta, Donostiako Andra-Marixetara juan gura eban".

KOTOI.- Algodoi. "Eskuko koipiak kentzeko kotoia erabiltzen dabe makiña bat taillarretan".

eskutitzak

DATORREN ASTEKO ALEA MARTITZENEAN ITXIKO DUGU

Datorren aste egunean, hilaren 17an, ...eta kitto!-ko lokaletan egingo dugun webgune berriaren eta astekariaren diseinu berrituaren aurkezpen-ekitaldia dela-eta, datorren aste alearen prozesua egun bat aurreratuko dugu. Aurkezpen-ekitaldian aldizkaria eskuetan izateko, inprentara eguazten eguerdirako bidaltzera gaude derrigor-

tuta. Horren ondorioz, astekarian edozein informazio sartu nahi baduzue edo zorion-agurrik edo eskelarik publikatu, kontuan izan **martitzena izango dela azken eguna**. Hori bai, alea ohiko egunean (barixakuan) izango duzue zuen buzoietan. Barkatu eragozpenak.

ERREDAKZIOA



Euskara Elkarteak

ARGITARAZTZAILEA: ...eta kitto! Euskara Elkarteak. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar
TELEFONOAK: 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.
Astekariaren €-MAILak: erredakzioa@etakitto.eus / komunikabideak@etakitto.eus /
publizitatea@etakitto.eus **Elkartean €-MAILak:** elkarte@etakitto.eus / normalizazioa@etakitto.eus
ERREDAKZIO-KONTSEILUA: Ana Aizpurua, Itziar Albizu, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez eta Uxue Igarza.
ADMINISTRAZIOA: Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILEA:** Ana Aizpurua.

ERREDAKZIO-BURUA: Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** J.L. Gorostegi.
ARGAZKI ARLOA: Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDUA:** Juan Andres Argoitia eta Maider Aranberri.
PUBLIZITATEA: Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnoa:** 943 20 67 76. **AZALA:** J.L. Gorostegi
BANAKETA-ARDUADUNA: Ainhoa Luz. **TIRADA:** 8.100 ale. **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).
COPYRIGHT-A: ...eta kitto! **LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. **ISSN:** 1132 - 1679
("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)



EIBARKO
UDALA



Gipuzkoa
BERRIA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA (HIZKUNTZA
POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak DIRUZ LAGUNDUTAKO ALDIZKARIA

Sexu-erasuagaittik atxilotuta

Ertzaintzak aditzera emondakuari jarraituta, aurreko asteko eguenian, arratsaldeko lehen orduan 26 urteko gizona atxilotu eben Eibarren, askatasun sexualaren kontrako erasua leporatuta. Atxiloketia azaruaren 22ko goizaldian gertatutako erasua harira egin eben. Ertzaintzak jasotako salaketia- ren arabera, azaruaren 22ko goizaldian, 05:30xak aldera, neska batek etxerako bidian

zoiala, gizonarekin topo egin eban eta, neskiak behin eta barriz juateko esan zetsan arren, kaso egin barik bidian berarekin batera jarraitu eban eta, pegorara ailegatzian, han gertatu zan ustezko sexu-erasua. Neskiak gertatutakuaren inguruko salaketia egin eban ertzainetxian eta, ertzaineri emondako informaziñuari esker, ustezko erasotzaillia identifikau eta atxilotu eben.



San Andres egunian erasua kontrako konzentrazifua egin zan.



gabonEKIN afarixa

Ekingune alkartekuak bigarrenez antolatu dabe "gabonEKIN" Gabonetako afarixa. Datorren asteko barixakuan izango da eta, antolatzailliak diñuenez, "beste batzuetan bezala networking-a egin eta eskualdeko beste hainbat lagunekin konektatzeko aukera aparta" eskinduko dau afarixak. Horrekin batera 2015. urtiaren inguruko balantzea presentau detse jendiari eta datorren urterako asmuak be azalduko dittue. Arkupe Gastropub-ian egingo daben afarixa 21:30etan hasiko da eta jua nahi dabenak 25 euro pagau biharko dau. Menua ensalada mistuak, kroketak, entrekotak, bakillauak, postriak eta krintza arduak osatzen dabe. Tokixa gordetzeko ekingune@ekingune.com helbidera idatzi edo 943 208 420 telefonozenbakira deittu leike (gaur da ordaintzeko azken eguna, di-rua 3008 0171 6626 1343 4220 kontuan sartu bihar da).

...eta kitto! 15/XII/11 • 954 zkia.



Ametrailladore-kabixaren maketia ikusgai

Domeka eguardixan presentauko dabe Arraten, Gerra Zibilleko Eibarko Frontearen Interpretaziño Zentruan, 1936ko irailletik 1937ko apirillera bittartian Akondiako bando errepublikanua- ren ametrailladore-kabixa izandakuaren erreplika, 12:00-xetan hasiko dan ekitaldixan. Maketia presentatzeko aitzaxiarekin, "Eibarko kultur ondarea eta batez be Armagintzaren Mu- seua eta Gerra Zibilleko Inter-

pretaziño Zentrua bera ezagutzera emoteko asmuarekin" ekoitzi barri daben bideua eta mobillerako sortu daben aplikaziñua be presentauko dittue. Paco eta Bernardo Pérez Güenaga anaixak 1:35 eskalari segiduta egin daben maketia 15 zentimetro luze eta 28 zabal dazkaz eta, eurekin batera, Jesús Gutiérrez eta José Luis Valenciaga egongo dira ekitaldixan, azalpenak emoten.



Apraizen armak museuan

Aurreko barixakuan Santa Barbara, armagiñen patroia- ren eguna zala eta, museoko sarrerian duan izan zan eta, horrekin batera, egun hori aukeratu eben Apraiz famelixiak udalari egin- dako arma-bildumaren dohaintza eskertzeko. Jose Luis Apraiz armetan aditua eta tiroko kirolari ezaguna izan zan eta, haren famelixiari eskerrak emoteko ekitaldixan, erregalau daben kole- kziñua presentau eben. Bildumia balixo haundixa daken XX. men- deko armak osatzen dabe: lau

erifle (Cetme C, Ak-47 FEG, Colt Ar-15, Savage Tactical 308 Win motakuak), BOPE markako ehi- zarako eskopetia eta sei erre- bolber (Star 31 P 9, Ruger GP-100, Ruger Redhawk, ASTRA SPS, Sig Sauer Mosquito, Free- dom Arms 454 Casull). Hamaika pieza hórretako hamar museoko arma-erakusketa iraunkorrian ikusgai egongo dira 2016ko abendura arte, museuaren ohi- ko ordutegixan: eguaztenetik za- patura 16:00etatik 20:00etara eta domeketan 10:00etatik 13:00era.

Askatasunarekin konprometiduta

Aurreko astian, martitzenetik eguenera bittartian Askagunia egon zan martxan Untzagan, Eibarko Libre taldiaren eskutik. Laranja kolorearekin batera ikur modura erabiltzen dabena "Elkartasunetik konpromisora" esaldixak taldiaren izaeria ondo baiño hobeto laburbiltzen dau: "Libre eskubide zibil eta politikuen alde jarduteko asmuarekin Euskal Herri mailan Eleak mugimenduaren eskutik jaixo zan moduan, geuk be horri jarraituta Eibarko Libre sortzia erabagi genduan oin dala hillebete batzuk, horretarako nahi-

kua jende batu giñanian. Guria oso talde zabala eta aberatsa da, gutariko asko ikasliak gara, baiña bada goz bihargiñak be. Berez ez dakagu inolako loturarik alderdi edo talde zihetz batekin, eskubide zibil eta politikuen alde gaiz zentzurik zabalenian eta horrek batzen gaittu, hórretxen de-fentsak".

Hain zuzen be, eskubide hórretxen urraketa ren harira antolatu eben aurreko astekua: "Mordaza legia eta holakuak jendia ren askatasunaren kontra doiaz zuzenian eta, horren aurrian moduren batian erantzuteko antolatu genduan Askagunea, izenak argi adierazten dabena moduan, jendia berba egitteko, formatzeko edo dana dalakua egitteko aske sentitzeko gunia sortziarren. Azaruan hiru eibartarren, Kepa, Naroa eta Aniaizen kontrako auziak atzera be abiarazten zirala ikusitta, hórre-



txek salatu eta auzipetueri gure alkartasuna adierazteko".

Kalian pasau dittuen hiru egunetan jarduera mordua garatu dittue eta talde oso ezberdiñak hartu dabe parte, gaiñera: "Alde horretatik oso pozik gaiz, oso jende ezberdiña gerturatu dalako eta askorendako oso arrotza zan gaixarekin interesa erakutsi dabelako, alde horretatik oso aberasgarria izan dala pentsatzen dogu". Eta, aurrera begira, oso argi dake biharrian segiduko dabela, "gauzak ez diralako justuak eta aldatzen ez diran bittartian horren kontra borrokatzen segiduko dogu".



Hyundai Tucson Berria Aldatzea jarrera bat da.



Aldaketa gure bizitzan zatia da. Sentsazio berriak aurkitzea eta une hungigarriak bizitzea ahalbidetzen digu. Irudimenaren motorra da. Hyundai Tucson berria jarrera horretatik jaio da. Bere diseinu eta berrikuntza teknologikoez gidaritzaz gozatzeko zure era guztiz aldatzea ekarriko dute.

Esperimentatu aldaketaren indarra www.hyundai.es helbidean

Tucson Berria 18.900€tik aurrera

 NEW THINKING.
NEW POSSIBILITIES.

OARSO CAR
HYUNDAI KONTJESIONARIO OFIZIAL BERRIA GIPUZKOARAKO

ELGOIBAR

Olaso Polig., 17 943 74 14 80



Hyundai Tucson Gama
CO₂ Emisioak (gr/km): 119-175
Kontsumo mistoa (l/100 km): 4,6-7,5

Tucson 1.6 GDI (121CV) 4x2 BD ESSENCE-rako gomendatutako prezioa, Penintsulan eta Balearretan (18.900€). BEZ, garrarioa, matriculazio-zerga, promozio-deskontua, kontzesionarioaren ekarpena, mantenimendu-eskaintza, Hyundai Solución Plana eta Gobernuaren PIVE Plana barne (Gobernuaren PIVE Planaren baldintzak betetzeari lotuta). Eskaintza aplikagarria gutxienez 60 hilabetetan eta 13.000€ko gutxieneko zenbatekoan Santander Consumer EFC S.A.-ren bidez finantzatuko duten bezero partikularrentzat. Finantza-entitatearen azterketa eta onarpenari lotutako finantziazioa. 2015/12/31ra arte balio du eskaintza honek. Erakutsitako modelo: Tucson Style. Mantenimendua ibilgailuaren finantziario lotuta. Begiratu eskaintza eta mantenimenduaren baldintza guztiak Hyundai kontzesionarioetako sare ofizialean edo [hyundai.es](http://www.hyundai.es) helbidean.

#changeisgood

Aparkatzeko toki barrixak

asteko
54.890
datua

euro gastauko dittue Bidebarrieta, Calbetón eta Barrena kalietan oiñezkuen pasabide goratuak egitteko, lizitaziñuan zihetzutakua baiño 20.000 euro gitxiago

Gabonak gertu daguazela ikusitta, azkenian Errebalgo biharrak pixka bat atzeratzia erabagi dabe, behintzat jaixak pasau arte. Edozelan be, Errebale biharrak hasten diranian aparkatzeko toki asko desagertuko dira eta, horrekin batera, gaur egun han lagatzen diran automobillak aparkatzeko beste tokiren bat billatzen hasi biharko dira gidari asko eta, hori erraztiarren, udalak San Juan eta Bidebarrieta kalietan alde bixetan aparkatzen lagatzia erabagi dau, "behintzat Errebalgo biharrak iraungo dittuen hiru urtietan".



San Juan kaliaren itxuria aldatu da beste aldiari be aparkalekuak egin dabenetik. SILBIA HERNANDEZ



1945ian jaixotakuak edarto Errioxan

Azaruaren 25ian Errioxara juanda ospatu eben euren jaixa 1945. urtian jaixotakuak. Bodegak bisitatzi az aparte, "bidaia kulturala" egitteko aprobetxau eben txangua eta, kontau deskuenez, San Millan de La Cogolla eta beste toki batzuk ikusteko denporia be euki eben eta, edarto bazkaldu eta jarraixan, Agirrerren musika alaixarekin euretako asko dantzan egittera be animau ziran.



Erosketak be euskeraz

Opari-paketiak egitten dittuen dendetan "Atean ez gelditu, euskeraz aritu!" esaldixa daken pegatinak banatu zittuen aurreko astian ...eta kitto! Euskara Elkarteak, Berbetan egitasmuaren barruan, eta datorren astian opari-paketerik egitten ez dittuenetara juango dira, "Euskeraz Primeran!" karameluak banatzera, "holan euskeria ahora eruan eta euske-


raz gozatzeko". Bestalde, abenduaren 18 eta 23an herritarren artian "Euskeraz Primeran!" poltsak banatuko dittuela aurreratu dabe. Ostalariak eta Dendariak Berbetan programiak denda eta tabernetan euskeria gehixago erabiltzia billatzen dau eta gaur egunian 204 dendak eta 80 taberna baiño gehixagok dihardue ekimenian parte hartzen.

JOSE LUIS ARROITAJAUREGI ALTUNA

1. URTEURRENA (2014-XII-15)



Haren aldeko MEZA ospatuko da azaroaren 13an (domeka), 12.00etan, SAN PIO X parrokiari.





ASIER LOPEZ DE VIÑASPRE (haur eta gazte saileko arduraduna)

Asier Lopez de Viñaspre Eibarko Udaleko Haur eta Gazte Saileko koordinatzailea da 2010etik. Bere jardunaren zati bat Portaleko Liburutegian egiten du, umeen alorreko arduradun bezala. Horretaz gain, Eibarren ditugun beste hainbat zerbitzu bideratzen ditu: Afariketean, Udalekuak, Gaztelekua, zapatueta tailerrak, urtarrilean martxan jarriko den ludoteka, Gabonak.... Amaitzean dagoen 2015. urtea modu positiboan baloratzen du Asierrek. Izan ere, laster, herrian hainbeste aldiz eskatu den ludoteka-zerbitzua izango dugu. Baina ez da berritasun bakarra izango; esate baterako, zapatueta tailerren kopurua bikoiztu egingo da urtarriletik aurrera.

“Ume eta nerabeendako aisialdi eskaintza zabaltzen dihardugu”

- Herriko ume, nerabe eta gazteentzako jarduerak koordinatzea da zure lana Eibarko Udalean...

Bai, Udalak helburuak markatzen ditu, eta gero zerbitzuak pliegoen bitartez konkurtsoan ateratzen dira. Gure betebeharrak da hezitzaileekin bildu, gaiak landu, arazo-eritrenbideak bilatu, nolako gauzak egin nahi ditugun erabaki... Eta batez ere oso inportantea da hezitzaileei entzutea, eurak baitira lehenengo lerro horretan daudenak. Afariketean da horietako zerbitzu bat. Afariketean proiektu zaharra da, 20 urte inguru izango ditu, eta horri buelta eman nahi izan diogu. Haur Hezkuntzako 3. mailakoek astean ordubeteko bi saio egiten dituzte eta nagusiek, 6 edo 7 urtekoak, ordu ta erdiko 2 egun. Udalak Jazinto Olaben duen lokalean ludoteka bat jarriko du martxan urtarriletik aurrera. Asteleheneetik ostiralera funtzionatuko du eta nahi duten umeak etorriko dira euren adinaren arabera taldeetara. Lehenengo saioan txikiak egongo dira (5 eta 8 urte bitartekoak) eta bigarren saioan 8-11 urte bitartekoak. Gure herrian ez da inoiz horrelako zerbitzurik izan, eta jende asko eskatu du. Horrekin 7 eta 12 urte bitartean zegoen hutsunea gaintzea lortzen dugu (Gaztelekua 12 urtetik aurrera hasten da). Ludoteka, Afariketean bezala, Astixa aisialdi-taldeak gestionatuko du, eta horrekin burubelari gaude. Zerbitzua urtarrilean hasiko bada ere, obrak ekainean, ikasturtea amaitzean hasiko dira (aurrekontuak onartzen baldin badira). Gabonetan zabalkundea egingo dugu. Ludoteka asteko 5 egunetan egingo da zabalik eta norberak nahi duen

egunean eraman ahal izango du haurra. Afaro bat dago eta izen-emate bat edukiko du. Afariketean-ek daukan prezio bera izango du: 50 euro txikiendako eta 75 nagusiendako.

- Ludotekaren bermikuntzaz gain, zapatueta tailerrek ere badago berritasunik datorren urteari begira, ezta?

Zapatueta tailerretara haurrak gurasoekin etortzen dira. Tailer batzuetan jende asko ematen du izena eta ezinezkoa izaten da hainbeste jende hartzea. Egia esan, espektatiba bat sortzen dugu eta gero ezin izaten dugu bete. Horregatik esfortzu bat egin dugu: urtarriletik aurrera tailerrak adinaren arabera antolatuko ditugu eta kopurua bikoiztu

Aurten, Olentzeroren kalejira, iluntzean izan beharrean, eguerdian izango da. Herritarrak parte hartzera animatu nahi ditugu

egino dugu (lehen 50 egiten genituen). Eta horrela ezezkoak murriztea lortzen dugun. Bestalde, Kirola Familian programa hasi genuen azaroan. Polikiroldegian gela bat lagatzen digute familia giroan haur hezkuntzako umeekin jolasteko. Neguan ume txikiak egoteko leku bat izatea da kontua. Bolondresak eskatzen ditugu gurasoen artean eta erronka handiena 17:30etik 19:00etara arduradun bat izatea da. Beraz, pixkanaka ume eta nerabeendako aisialdi-eskaintza egokitzen eta zabaltzen ari gara.

- 12-17 urte bitartekoendako Gaztelekua dago. Nolako da erantzuna?

Nerabeekin erronka normalean parte-hartzea izaten da. Guk nahi dugu beraiek ulertzea Gaztelekua ez dela gurea, euren baizik. Jarduerak bizirik eutsi ahal izateko ezinbestekoa da euren parte-hartzea eta indar asko joaten zaigu animatzen, zirikatzen... Sukaldea, esate baterako, tresna bikaina da, asko gustatzen zaie. Kontsolak eta era horretako tresnak ere euren gustokoak izaten dira, baina horien erabilera mugatzera joan behar gara. Datorren asteburuan Bilboko Lasergunera joango gara eta nerabe asko apuntatu dira. Paintballaren antzerako zerbitzu bat da, baina espazio itxi baten eta argien bitartez, paintball digitala dela esan daiteke. Horretaz gain, Gabonetarako, ekonomi sailarekin batera, robotika-tailerra antolatu dugu.

- Olentzeroren kalejiran nobedadeak daude. Zer aurreratu ahal digugu?

Olentzeroren kalejiran aurten nobedadeak daude, eguerdian egingo baitugu. Azken 25 urteetan iluntzean egin da eta aurten, azken urteetan kalejiran parte hartzen duten elkarte eta eskolei entzunda, eguerdian egitea erabaki dugu. Deialdi berezia egiten ari gara egun horretan herritarrak Olentzerorekin batera kalera irtezeko eta gabon-kantak abesteko ohitura berreskuratzeko. Gazteen ohitura zena apaltzen doa eta su hori berriro berpiztu nahi dugu. Ibilbidea aldatu egingo dugu: 11:30ean hasiko da Urkizun eta Untzagarraino igoko da. Galtzagorriak etorriko dira laguntzera eta kantu-paperak aterako ditugu, buruz ez dakizkitenek ere gabon-kantak abes ditzaten.

Radio Eibarren "Hoy Por Hoy" saioan egunero entzun dezakegun ahotssetako bat kazetari gazte honena da. Argentinan jaio, Badajozen hazi eta Nafarroan ikasi du Sol Gragerak eta, azken hilabeteotan Eibarko aktualitatea egunero jarraitzen ibili eta gero, honezkero eibartartu zaigun esatariak bere esperientzia kontatu digu.

- Zelan ailegatu zinen Eibarrera?

Otsailean etorri nintzen, Nafarroako Unibertsitateak Cadena SER irratiako emandako urtebetarako bekarekin. Méridan (Badajozen) hazitakoa naiz, baina urruti izan arren ez nuen birritan pentsatu, zer galdu ez nuen eta.

- Bazenekien Eibari buruzko ezer?

Eibar FT Lehen Mailara ailegatu berri zela eta, horrez gain, industria eta historia ere ezagutzen nituen. Aurretik etorri barik nongoen, baina behin etorrita burua arlo askotan zabaldu zitzaidan, ordura arte ezagutzen nuenetik erabat ezberdintzen zen zerbait aurkitu nuelako.

- Eta orain nolako inpresioa daukazu? Gustora zaude?

Denborarekin herria eta eibartarren izaera hobeto ezagutzen joan naiz, baina lehen egunetik herri atsegina begitandu zitzaidan. Horren txikia izateko kulturalki horren zabala eta aberatsa izateak oraindik ere harritzen nau, baina hori inmigrazioari zor dio. Edozein ondo hartzeko izaera horrek hasieratik gustora egotea eragin dit, ez naiz "kanpotar" sentitu eta hori horren garbi oso toki gutxitan sentitu daiteke.

- Nolako da irratiko zure lana?

Goizeko 08:00etan hasten naiz, baina ordurako irratia entzun eta egunkariak begiratu ditut. Ailegatu bezain laster, albistejiaren gidoiaren eskema egin ahal izateko prebisioa ezarri eta edukiak garrantziaren arabera

sailkatzen ditut. Tokian tokiko informazioan sarritan norberak sortu behar ditu albisteak, zer gertatzen ari den, jendeari zerk eragiten dion eta zer den garrantzitsua ondo begiratzen ibili eta gero, hori da zailena. Asko eskatzen duen lana da, baina horrekin batera irratia unibertsitatean ikasi ez duzuna ikasteko eskola aparta da. Estres handiko uneak bizi dira, baina eguneko albistea zein den asmatzea eta edozeinek ulertzeko moduan kontatzea benetan ederra da.

- Zerbaitek bereziki harritu zaitu etorri zinenetik?

Ehun industrialak eta horrek jendearen eguneroko bizimoduari nola eragiten dion, horrek harritu nau gehien. Hau da, ondo lan egiteko gaitasunak eta horrek ematen dituen fruituak.

- Aurrera begira, zer egin nahiko zenuke?

Kazetaritzan jarduteak, irratiak eta literatura-erreportaje luzeak idazteak eta horietarako argazkiak egiteak, horiek guztiak ikaragarri gustatzen zaizkit. Epe laburrean hedabide bat eratzen ikusten naiz, beste kazetari gazte batzuekin elkarlanean dihardut Extremaduran internet bidezko hedabidea aurrera ateratzeko. Eta gaztea naizen bitartean bidaiatzea nahiko nuke, Argentinara joatea gustatuko litzaidake, berez han jaio nintzelako, tarte baterako behintzat han lan egitea eta familiarekin bizitzea nahiko nuke.



Sol Gragera (KAZETARIA)

"Ez naiz inoiz kanpotar sentitu Eibarrera heldu nintzenetik"

Isasi, 31 Egunero 06.00-22.00
943 207 737
 Etorri!
 Zure etxian
 egongo zara!!
KAFETEGIA OKINDEGIA
SUTINDO

K21
MUGICA
 ITURGINTZA
 AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA,
 GAS INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA,
 PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN
 ERREFORMAK ETA ABAR...
HANSGRÖHE KANILEN BANATZAILEA
 ZORU ERRADIATZAILEA
 EGUZKI-ENERGIA
Egiguretarren, 18
 Tel. 943 20 10 30 - Faxa. 943 20 72 24

A-20: Urteko bigarren hauteskundiak

Baten faltan, bittan izango dogu aurtent botua emotera juateko aukeria. Kanpaiñaren erdialdian gagoz eta atzo, esaterako, amaittu zan korreoz botua emoteko tartia. Domekara (abendua 20) arte beteko dau gaur egungo Gobernuak bere funziñua, eta 21etik aurrera al daketarako bidia egitten juango da Ejekutibo barrixak bere tokixa hartu tartian. Hillaren 23an, bestalde, kanpotik etorritako botuak zenbatuko dira. Eta, behin 2016xan, urtarrillaren 14a da fetxa topia Korte barrixak osatzeko.

Politikan parte hartzeko modu bat baiño gehixago dira hauteskundiak. Zuzenian edo zeharka, bati baiño gehixagori tokatzen jako lan egittia hauteskunde egunian, boto-emoillien eskubidiak bermatu edo kontaketa biharrak eraginda, bestiak beste. Hillaren 20xan Espaiñako hauteskunde orokorrak izango dira, aurtengo bigarrenak, maiatzian egindako udaletarako eta Foru Aldundietarakuen ondoren. Urtian bigarren bidar hartuko jako tenperaturia politikaren termometruari. Debatia batian eta debate falta bestian, debate horretatik kanpo geratzen diranak protestatzen dabe eurak baztarran geratzen diranian, kaltetuak bestiak diranian halako postuarekin ahazteko. Bittartian, kanpaiñaz-kanpaiña, jakiña, esloganak asmatzia tokatzen da, askotan nahiko errepikakorrak izaten badira be. Partido Popularrak "Es-



paña en serio" aurkeztu dau, PSOE-k "Un futuro para la mayoría", Ciudadanos-ek

"Con ilusión", Podemos-ek "Un país contigo, Podemos", Unidad Popular-ek "Por un nuevo país", UPyD-k "Más España" eta Democracia y Libertad-ek "(Impossible)", azken hau originalena seguruenik, baiña baita piska bat nahasgarria be. Hamen go alderdixen artian, EAJ-k "Lehenik Euskadi"-rekin urten dau kalera eta EH-Bilduk "Bildu Erabakira" esloganarekin. Katalanak be etara dabe eurena: ERC-k "Defensa el teu vot" kaleratu daben bittartian, Union Democratica de Cataluñak "Soluciones!" aieratu dau.

Urte berian bi hauteskunde bizitziak jendia aspertzeko arriskua be badaka, baiña kontuan izan bihar da aurreko bi urtitan Europarakuak izan genduazela bakarrik. Hori bai, datorren urtian Eusko Legebiltzarrerakuak etorriko jakuz ate joka.

Zozketaren patua

Gu ez gara izango hillaren 20xan biharrin jardungo dogun bakarrak; egongo dira, bai, guria baiño lan lotuagua izango dabenak. Hauteskunde mahaixetako presidentia eta bokal bixak izango dira hórrek, bakotxak egun horretako bere lanarengaittik 62 euro jasoko dabenak. Euren zeregiña ez badabe betetzen, hiru hillabetetik urtebetera bittarteko kartzela-zigorra edo sei hillabetetik bi urtera bittarteko isuna jaso dezaketek.



bista eder
clinica dental - horts klinika

Asko dira
gure horts-kliniketara
etortzeko arrazoiak

R.P.S. 53/13



20.000tik GORA PAZIENTE ASEBETE IZATEA DA HORIETAKO BAT
20 urteko esperientzia eta ikerketa gaur biharko arreta jaso dezazun

www.innovadentalclinicas.com



bista eder
clinica dental - horts klinika

Bista Eder, 19
20600 **Eibar** Tel: **943 70 00 82**



innovadental [Azpeitia]
clinica dental - horts klinika

Jose de Artetxe, 5
20730 **Azpeitia** Tel: **943 02 59 55**

23 urte hauteskundien ale berezixa egitten

Abenduaren 20ko hauteskundiak ...eta kitto!-k paperian kubritzen dittuan hogeigarrenak izango dira; izan be, Europarakekin ez dogu alerik kalia ipintzen, horko emaitzak web orrian jarraitzen badoguz be. Eta Espaiñiako Kongresurako eta Senadurako hauteskunderi begira, oingua zazpigarren bidar jarraituko dittugu. Holako hauteskunde batzuekin hasi genduan, gaiñera, gure ibilbidia: oin dala 22 urte pasata, 1993ko ekaiñaren 6xan, kaleratu genduan hauteskunde bixamonako lehen alia, domeka hartako nondik-norakuak egun osuan jarraitu eta gero. Orduko hartan Felipe Gonzalezek laugarren bidar irabazi zittuan hauteskundiok, hurrengo bixetan (1996 eta 2000) Aznar nagusittu zan, jarraixan Rodriguez Zapaterok irabazi zittuan 2004kua eta 2008kua, eta oiñ arteko azkena Rajoyrentzat izan zan 2011n, oin dala lau urte.

Gure herriko datueri erreparatuta, PSE-EE izan da beti nagusi halakuetan; hori bai, estaduan PPK gora egin dabenian eta PSEk behera, hori be ondo igarri da gure artian. 22 urte hauetan, botuen %30aren bueltan PSErentzat izan dira holakuetan, 2008kua kenduta: hor %45era heldu zalako, Zapateroren bigarren legegintzaldira, baiña kontuan izan bihar dogu ezker abertzalia ilegalizauta zeguala. EAJ izan da bigarrena halakuetan, kenduta 2011ko azkenian, hor Amaiur legeztatu barrixak hartu zetsan-eta aurria; ez hori bakarrik, azken hori asko gerturatu jakon PSEri, bi puntura kolokatzeraño. EAJk, dana dala, PSEk baiño gorabehera haundixaguak izan ditu urte guzti horretan eta %19ttik %28rako parametruetan muggittu izan da. PPK berak be aldaketa haundixak ezagutu ditu emaitzotan, eta hor mugittu da, %13tik %26ra arteko franjan. Aznarren biharren legegintzaldirako hauteskundie-



tan jo zeban goixa eskumako alderdixak, %26xarekin. HB PPren aurretik izan zan 1993ko hauteskundieta, baiña hurrenguan, Felipe Gonzalezek aurreratutako 1996kuan, PPK gora egin zeban eta hirugarren postu hori kendu zetsan ezker abertzaleko partiduari. Gero, ilegalizaziño fasia zabaldu zan, 2011n Amaiur izenarekin bueltatu arte: ezker abertzaliak jauzi haundixa emon zeban (1993ko %16tik 2011ko %26ra pasatzeko). EA izango zan bosgarren indarra sasoi horretan, urtien poderioz beheraka egiñez, %12rekin hasi eta %6xarekin amaitzeko. IU-EB %7xaren bueltan ibilli da urte guzti horietan.

HAUTESKUNDE KOLEGIXOTAKO MAHAI-ZERRENDIA

Udaletxian: 6 mahai
 Arrateko Andra Marin: 4 mahai
 Gerontologikuan: 2 mahai
 Amañako torrietan: 2 mahai
 Amañako parrokiak: 2 mahai
 Coliseoan: 4 mahai
 EPA Zentruan: 4 mahai
 San Andres (jantokixan): 4 mahai
 San Andres (aretuan): 2 mahai
 Urkizun: 7 mahai

EIBARKO EMAITZAK Kongresurako hauteskundieta

1993: PSE 5.402 (%30) / EAJ 3.533 (%19) / HB 2.899 (%16) / PP 2.335 (%13) / EA-EuE 2.140 (%12) / IU-EB 1.023 (%6)

Felipe Gonzalezek irabazi zeban

1996: PSE 5.294 (%29) / EAJ 3.769 (%21) / PP 2.964 (%16) / HB 2.441 (%13) / EA 1.913 (%10) / IU-EB 1.378 (%8)

Jose M^a Aznarrek irabazi zeban

2000: PSE 4.457 (%29) / EAJ 4.324 (%28) / PP 4.018 (%26) / EA 1.548 (%10) / IU-EB 602 (%4)

Jose M^a Aznarrek irabazi zeban

2004: PSE 5.297 (%29) / EAJ 5.214 (%28) / PP 2.689 (%14) / EA 1.439 (%7) / EB-IU 1.284 (%7) / Aralar-Zutik 677 (%3)

Rodriguez Zapaterok irabazi zeban

2008: 6.780 (%45) / EAJ 3.447 (%23) / PP 2.002 (%13) / EA 860 (%6) / EB-IU 705 (%5) / Aralar 608 (%4)

Rodriguez Zapaterok irabazi zeban

2011: PSE 4.310 (%28) / Amaiur 4.087 (%26) / EAJ 3.504 (%23) / PP 2.048 (%15) / Ezker Anitza 560 (%4) / UPyD 204 (%2) / Equo 162 (%1)

Mariano Rajoyk irabazi zeban

AURRETIK LANDUTAKO ALIAK

- 1993-VI-6** Espainiako Kongresurako
- 1994-VI-13** Europar Parlamenturako
- 1994-X-23** Eusko Legebiltzarrerako
- 1995-V-28** Udalerako eta Batzar Nagusietarako
- 1996-III-3** Espainiako Kongresurako
- 1998-X-25** Eusko Legebiltzarrerako
- 1999-VI-13** Udalerako, Batzar Nagusietarako eta Europar Parlamenturako
- 2000-III-12** Espainiako Kongresurako
- 2001-V-13** Eusko Legebiltzarrerako
- 2003-V-25** Udalerako eta Batzar Nagusietarako
- 2004-III-14** Espainiako Kongresurako
- 2005-IV-17** Eusko Legebiltzarrerako
- 2007-V-27** Udalerako eta Batzar Nagusietarako
- 2008-III-9** Espainiako Kongresurako
- 2009-III-1** Eusko Legebiltzarrerako
- 2011-V-22** Udalerako eta Batzar Nagusietarako
- 2011-XI-20** Espainiako Kongresurako
- 2012-X-21** Eusko Legebiltzarrerako
- 2015-V-24** Udalerako eta Batzar Nagusietarako

APARTA, BERRIA, PRAKTIKOA eta GAURKOA
 emansl@emansl.es

EMAN CONSULTING, S.L.

- **AHOLKULARITZA ETA CONSULTING:**
 - Laborala - Fiskala - Kontablea - Juridikoa
- **GIZA ERREKURTSOAK:** - Enpresako komenio eta hitzarmenak
- **PERTSONALAREN AUKERAKETA**

J. Etxeberria, 5 943 200 336 / 943 200 069 Fax: 943 200 342 **EIBAR**
 Marqués de Valdespina, 10 943 170 054 Fax: 943 176 901 **ERMUA**



MAILAK TRUST, S.L.
 TRANSAKZIO INMOBILIARIOAK
 KOMUNITATEEN GESTIOA

- **ETXE ETA LOKALEN SALEROSKETA**
- **ALOKAIRUAK**
- **BALORAZIOAK**
- **SUBENTZIOAK**
- **BANKU KREDITUAK**
- **TRASPASOAK**
- **PERITAJEAK**
- **KREDITU OFIZIALAK**

J. Etxeberria, 5 (**EIBAR**) 943 200 336 / 943 208 778 Fax: 943 200 342
 Marqués de Valdespina, 10 (**ERMUA**) 943 170 451 Fax: 943 176 901

Madrillera juateko be, Eibarren botuen billa

Bestalde, Euskadi ordezkaten 18 diputatu eta 12 senatari aukeratuko ditue. Senatarixen kasuan, launa dagokixe hiru probintzietan; baiña ez da horrela diputatuari dagokixenez, hor biztanlien arabera banatzen dira-eta. Holan, Bizkaiak zortzi izango ditu, Gipuzkuak sei eta Arabak 4 (Nafarruak 5 izango ditu). **GIPUZKOAKO HAUTAGAIXEN ARTIAN, Miren Gallastegi lehelengo postuan doia Senadurako sozialisten zerrendan.** PSEk Odon Elorza daka buru Kongresurako. EH-Bilduk Marian Beitialarrangoitia aurkeztuko dau Kongresurako eta Urko Aiartza Senadurako. EAJ-PNVk Joseba Agirretxea darama zerrendaburu Kongresurako eta M^a Eugenia Iparragirre Senadurako. Borja Sempere izango da PP-ren lehelengua Kongresurako eta Juana Bengoetxea Senadurako. Podemosek Nayua Goveli aurkeztu dau Kongresurako eta Josetxo Arrieta Senadurako. Unidad Popular - Orain Batera Jon Hernandez eta Francisco Javier Pomborekin juango da lehen postuetan, Kongresurako eta Senadurako hurrenez hurren. UPyDren kasuan Juan Luis Fabo (Kongresua) eta Inmaculada de la Riva (Senadua) izango dira buruak; eta, azkenik, Fernando Lopez de Lacalle eta Jonathan Calvo juango dira Ciudadanosen zerrendetan. Ikusten denez, gizezko/emakumezkoen presentzia nahiko parekatuta dago lehen postuetan.



MITINA
EIBAR / UNZAGA PLAZA
2015/ABENDUAK/10 - 19:30EAN

María Eugenia Iparragirre
Joseba Agirretxea
Andoni Ortuzar



LEHENIK
EUSKADI
ES LO QUE
IMPORTA

Atzo arratsaldian EAJ-PNV-k Untzagan emon biharreko mitiña anzunzaten.



Haraiñegun EH-Bilduk Portalean eskindutako ekitaldixan Igone Lamarain eibartarrak hartu eban parte.

Sozialistak Sanandresak aprobezau zebeu gure herrixa bisitau eta jendiarekin egoteko. Merkadillo egunetan be izan dira larrosak banatzen.



ABENDUAK 10 19etan EIBARKO BIZIKLETA PLAZA (Galerías)
KANPAINA ACTO DE CAMPANA
EKITALDIA
PODEMOS.

5 Herri akordio
5 Acuerdos de País

1. Los derechos sociales y ambientales dignos
2. Una política igual para todos
3. Que se castigue la corrupción
4. El derecho a decidir
5. La igualdad política, el voto de todos, vale igual

NAGUA ALBA
Kongresurako Gipuzkoako Hautagaia

JULEN BOLLAIN
Eibarko irazkari Nagusia eta Sanandresako Gipuzkoako Hautagaia

JUANTXO LÓPEZ DE URALDE
Kongresurako Arabako Hautagaia

PATRICIA GETE
Gipuzkoako Bartzel Nagusietako Kidea

HERRI BAT ZUREKIN, PODEMOS.

EIBAR

Atzo arratsaldian Eibarko Bizikleta Plazan izan zebeu ekitaldixa Podemos-ek, Julen Bollain eibartarra tartian zala.

25 años de
urte *Comunicación*
grafikoa *Personalizada*
zure neurritan
egiten

EstilGráfico
Desde 1990-etik

SORMENA
LAN TALDEA
WEB GUNEA
KATALOGOAK
IRUDI KORPORATIBOA
ENPRESAKO BIDEOAK
ERROTULAZIOA
ARGAZKIAK
IRAGARKIAK
PACKAGING-A

Bidebarrieta, 27 B - 20600 EIBAR
Tel. 943 82 13 00
www.estilografico.com

...eta kitto!-kuen lan eguna

1993ko ekaiñaren 6xan hasi zan gure rebestia hauteskunde-alia egitten, oinguan moduan Espaiñako Hauteskunde Orokorrietan. Orduetik hona, Udal Hauteskundiak eta Batzar Nagusietarakuak, Eusko Legebiltzarrerakuak, Europar Parlamenturakuak, ixa urtero hauteskunde guztiak kubridu dittugu, kalerik egin gabe, "euskeraz ez dakixenen artian be" azep-taziño haundixa dakan astelehen goiz-goizeko aliarekin.

Holakuetan, eta oinguan bardin, "hamabost bat egun lehenago hasten gara hauteskunde-eguna planifikatzen", diñoskue Marisol Uriarte eta Silbia Hernandez lan-koordinatzaillak. Lan-taldia nahiko finkatuta dago aspaldittik (13 lagun oinguan, batzuren kasuan aurretik rebistatik pasatutakuak eta egun hori gordezten dabenak barriro alkar ikusteko). Alderdixetako ordezkariexekin hitzordua lotuta -bai goizian botua emoterakuan eta baita gabaz azken orduko eritzixa emoteko be-, kazetari eta argazkilari biña mobilizatzen dira goizian. Aldi berian, "goizetik webgunian, Twitter-ian eta Facebook-ian egingo jako jarraipena egunari eta herrixan daguan giruari".

Arratsaldian, argazkixak etara eta giruaren jarraipena egiñ ondoren, 19.00etan ba-





tzen da lan-taldia eta "bederatzi kolegixo ofizialelara ordezkari bana juango da, botu-kontaketa amaitsu arte". Kolegixoz-kolegixo eta mahairik-mahai botuak jaso ondoren (hori bai, presidentiaren eta udal funziarixuen laguntasunaz), ...eta kitto!-ra bueltatuko dira. Datuak plantillan sartu eta Barne Ministerixoko datu ofizialekin kotejau ondoren, ale berezixan formia emoten juango jako. Lau kazetarik gabeko baloraziñuak jasoko dittue alderdi guztietako ordezkariexen ahotik, "askotan guk geuk emoten detsegun datuekin". Beste kazetari batek testu orokorra prestatzen daben bittartian, soziologuak interpretaziña egitten dau eta irakorketa egitten saiatzen da, "beti be presaka eta azken datureri adi". Goizeko 02.30xak inguruan Ger-tu inprimategixan izango da alia, bestela-

korik ez bada gertatzen: "Oin dala urte batzuk, korreo elektronikua kopauta zeguan eta autuan juan bihar izaten giñan bertara", diñoskue halako arazua gogoratzian.

Astelehen goizian produktu freskua
 Eta goizeko 07.30xetan Oñatin jaso eta Eibarren hasiko da banatzen alia. "Guztira, 63 puntutan lagatzen dittugu: denda, komertzio, kiosko, Portalea, Pegora... eta kalian be, hainbat puntutan jartzen dira". Puntu-banaketia azken astian egitten da, jendiari telefonoz deittuta eta jendiak "oso ondo erantzuten dau". Itzuli bi egittent dira, "aliak agortu badira be". Herri-komunikabidiak eta politikuak be jasotzen dabe astelehen goizeko alia eta "jendia gurera be etortzen da".

Aittatutako lan guzti hori nahiko "sistemizatuta" dago: "Politikuak honezkero badakixe zelan egitten dogun biharra, funziarixuen laguntasunak be prozesua asko azkartzen desku... Sasoi batian kolegixuetara ez giñan juaten, Udalaren menpe egoten giñan; oiñ askoz samurragua da dana".

...eta kitto! da Debabarrenan astekari bakarra hauteskunde guztietako datuak kaleratzen eta, "jendiarentzako esperientzia aberasgarrixa izatiaz gaiñ, onarpen zabala jaso dau herrixan".

 <p>denolan, s.l. ENPRESA AHOLKULARITZA</p> <p>Tf. (4 linea): 943 20 16 80 Fax: 943 20 18 41 denolan@denolan.es Muzategi, 1 (EIBAR)</p>	 <p>ASEGURU ARTEKARITZA</p> <p>Muzategi, 1 (EIBAR) Tfnoa: 943 20 16 80 Faxa: 943 20 18 41</p>
---	---



Larragest



INMOBILIARIA
690 610 715

ASEGURUAK
943 200 795

F. Calbeton, 22-24



GABONETARAKO erosketa GIDA

TXUKUNA

E. Garate, 1
943 82 13 08

- Barruko erropa eta pijamak (ume eta helduak)
- Emakumeen erreduktoreak (aukera handia)



- Poltsuak
- Narrua
- Zilarra
- Artisautza
- Bitxikeriak
- Opariak...

Pitxiak

Zuloagatarren, 9
943 20 17 40



Zentro optikoa eta audifonoak



**zorionak
eta urte
berri on!**

- Opariak egiteko aukerarik onena

J. Etxeberria, 13
943 70 02 30



- Bono bereziak: Gabonetan opariak egiteko aukera bikaina



Bidebarrieta, 5 **943 20 15 47**



- Perfume ezagunen parekoak, aire-freskagarriak eta mikadoak

Bidebarrieta, 1
943 53 12 24

- Emakumeendako jantziak eta konplementoak



San Juan, 1
943 20 33 29

- Landareak
- Zentru naturalak eta lehorrak
- Etxerako zerbitzua



FARMALUR



T. Etxebarria, 18
943 70 29 23

*Opariak
etxeko
guztientzat*



zorionak!



GRATZINA

Zuloagatarren, 1
943 82 15 77



Jauregui

San Agustin, 4
943 20 16 47

- Menajea
- Beira
- Opariak



Patukos



*Gahon
zoriontsuak!*

Errebal, 1 -Aldapatxo- (Eibar)
943 25 92 81
Akilino Arriola, 6 (Sopela)



Twins

Bidebarrieta, 8
943 05 60 82

*zorionak eta
urte berri on!*



- Etxeko batoiak
- Ume eta helduentzako pijamak
- Galtzerdiak
- Mukizapiak
- Barruko erroa

*Mota guztietako
artileak eta hauek
lantzeko ikastaroak*

San Agustin, 2
943 20 40 63



*Etorri
zaitez
ikustera!*

- Mendirako behar duzun guztia

Mara Mara

Arragueta, 10 943 70 20 63

ASTIGARRAGA





Guby

Birjiñape, 1
943 20 28 33

Zuloagatarren, 9
943 20 12 40



zorionak!

*La tienda
de Pau Da*

Zuloagatarren, 7
943 70 15 46

baglietto

Errebal, 21
943 20 19 22

- Opariak
- Etxerako osagarriak
- Pinturak



Ditare

Urkizu, 7
943 12 73 21



30 urte
baino
gehiago

- Gizon eta emakumeendako barruko arropak
- Azpikogonak - Mukizapiak - Mertzeria
- Emakumeen bainujantziak
- Berezitasuna taila handitan!



Ego Gain, 13
943 24 73 44

- Oihalak
- Konfekzioa
- Mertzeria
- Pijamak
- Batak

Oihal

GU BY

J. Etxeberria, 2
943 20 15 51

- Gusto eta adin guztietako moda




Deskontu bereziak

ZENTRAL OPTIKA: MODA ETA TEKNOLOGIA ZURE BEGIRADAN

- Betaurrekoak eta opariak denondako

Ego-Gain, 2
943 70 14 08





Bidebarrieta, 1
943 20 15 80

- Moda
- Oparietarako osagarriak

Zorionak!

Zorionak eta urte berri on!



Bidebarrieta, 10

943 57 64 52

Bidebarrieta, 12

943 20 22 33

VALENCIAGA



Zorionak eta urte berri on!

- Bidaietarako artikulua
- Poltsoak
- Euritakoak
- Narruzko erroa
- Osagarriak



LEDER



J. Etxebarria, 4 943 20 32 90



T. Etxebarria, 22

943 12 72 36



Zorionak eta urte berri on!



Bidebarrieta, 28
943 20 79 73

- Pastelak, "txikiak", pastak, rellenoak, bonboiak, tartak...
- Enkarguak etxera



GABON



Sanandresak agurtu eta abendua hasi orduko Gabon usaina herri osoan zabaltzen joaten da urtero. Kaleak apaintzeko argiak pizten hasten dira lehenengo, ia jarraian herriko dendetako erakusleihoak ere argi eta apaingarri koloretsuekin betetzen joaten dira, etxeko txikienen artean urduritasun puntu bat somatzen hasten gara... Eta konturatu orduko Olentzero berriz ere ate joka izango dugu, zintzo portatu direnei eskatutako opariak eta besteei ikatza banatzen hasteko prest.

GABON GIROAK harrapatuta

Abenduko lehen egunean ipini zituzten Pegoran eta Portalean Olentzerori idatzitako gutunak jasotzeko buzoiak eta hilaren 23ra arte hor jarraituko dute, nahi duenak bere gutuna bertan botatzeko aukera izan dezan. Hala ere, Olentzero gure kaleetan kalejiran ikusteko egun batzuk zain egon beharko dugu oraindik, hilaren 24a ailegatu bitartean nahikoa lan izango baitu umeek zein helduek eskatutako gauza guztiak prest izateko. Baina aurten beste batzuetan baino pixka bat lehenago etorriko zaigu bisitan, orain arte iluntzean egiten zuen kalejira aurreratu eta oraingoan egun argiz egingo du eta, goizeko 11:30etan Urkizutik abiatuta. Kalejiran, besteak beste Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako eta Adolfo Jainagaren ikasleek eta Eibarko Kantuzaleak eta Kaleetan Kantuz abesbatzek hartuko dute parte eta jende gutzia kalejiran parte hartzera eta Olentzerori eurekin batera kantatzera animatu nahi du-

te. Urkizun hasi eta Arragueta kaletik gora joango da kalejira, Coliseo, Errebal, anbulategia eta Toribio Etxebarria igarota Untzaga Plazan amaitzeko. Eta 12:30etik aurrera Olentzero udaletxe barruan egongo da, umeen eskerak entzun eta azken orduan idatzitako gutunak jasotzeko.

Artisauak Zuloagatarren kalean

Eibart Eibarko artisauen elkarteak udalaren laguntzarekin antolatzen duen Gabonetako Artisau Azokak 12 urte egingo ditu aurten eta, iazko moduan, Zuloagatarren kalean (Kultu aldamenean) zabalduko dute, abenduaren 18tik urtarrilaren 5a bitartean (abenduak 25, urtarrilak 1 eta domeketan itxita, 20an izan ezik), goizez 11:00etatik 14:00etara eta arratsaldean 17:00etatik 21:00etara.

Parte hartuko duten artisauak hauek dira: Nieves Maidagan, Marta Irusta, Arrate Espilla, Eskulan, Ahiztak, Ana Orozko, Miren Torrealday, Aurkene Pagalday, Sara Peñalba, Izaro Orbegozo, Nekane, Artezi, Vanesa Ateca, Aittu, Mertxe R. Garcia, Maria Baskaran, Zindagi, Ixi Wood, Etoile, Ceramica El Unicornio Loco, Hazi eta Hazi, Alberto Oca...

Betiko martxan, bestalde, artisauen postuez gain, hainbat ekitaldi eta jarduera hartuko ditu azokak: abenduaren 18an Miren Narbaiza-



ren kontzertua, 20an umeentzako antzerkia, 26an Aitor Maiora (DJ), 28an txakurterapia umeentzat, urtarrilaren 2an Sushi Eguna...

Haur-parkea Astelena

Eibar Merkataritza Gune Irekiak eta udalaren antolatutako Gabonetako Haur Parkea aurten ere Astelena frontoian zabalduko dute, abenduaren 26, 28, 29 eta 30ean, 11:00etatik 14:00etara eta 16:30etik 20:30era; eta urtarrilaren 2an eta 4an, berriz, 11:00etatik 14:00etara eta 16:30etik 20:30era (abenduaren 27an eta urtarrilaren 1ean eta 3an itxita egongo da).

Parkean urte bi eta 12 urte bitarteko umeek ederto pasatzeko joko eta bestelakoak egongo dira eta sarrerak 3 euro balioko du (Eibar Merkataritza Gune Irekiaren bonoarekin doan). Edozein modutan, ume bakoitzak parke barruan gehienez ordu eta erdi pasatu ahal izango du, horrela txandakatuta haur guztiek sartzeko aukera izateko. Eta Astele- natik kanpora ere ondo pasatzeko aukera eskainiko dute, anbulategi parean martxan dagoen tiobiboaz gain laster Txaltxa Zelaian eta Urkizun zabalduko dituzten barraketan.



Arrate Sarasua Meabebasterretxea

"Olatuek ezin dute inoiz hondar guztia eramán"

**Maite zaitugu
ETXEKOAK**



Durangok sei puntuko aldea du foball-zaletuko ligan

Asteburu biko parentesiaren ondoren (sanandresak eta aurreko zubia), foball-zaletuen liga martxan jarriko da berriro bihar. Azken jardunaldiko ezusteko emaitzak (Bar Aretok 1-0 irabazi zion Garajes Garcia.com-i) Durango liderrak sailkapenean zuen aldea handitzea ekarri du. Orain bizkaitarrek sei puntu ateratzen dizkiete Bar Txokori eta zortzi Azken Adahik, Alkidebak eta Garajes Garciak osatutako hirukoteari. Bar Aretok partidurik irabazi gabe zegoen bakarrak Garajes galdu gabe zegoen ba-

karrari irabaztean denboraldiko ezusterik handiena izan daitekeena ekarri zuen 10. jardunaldian, sailkapena argitze-ko balio izan duen neurri berean. Oraindik gehiago argitze-ko (edo iluntzeko) balio deza-ke bihar 12.00etan jokatu-ko den Durango-Txoko neurketak. Orain arteko goleatzailen sailkapenean, bestalde, hiru dira sari hori irabazteko lehia estuan dihardutenak: Yosu (L.P. Machado Tankemans), 12 golekin; Kepa (Azken Adahi), 11rekin; eta Rodrigo (Alkide- ba), 9rekin.



A Coruñako CRAT bisitari domekan Unben

Partidu gogorra izango dute gure herriko senior mailako errugbilariek etzi 12:00etan Unben. Euren multzoko laugarren sailkatuak ez dizkie erraztasunik eskainiko Urkidiren mutili, baina jokoan izango diren puntuak badute bere garrantzia. Azken jardunaldian eibartarrek ezin izan zuten punturik ekarri Uribealdearen aurkako partiduan eta, 24-13 galduta, ezin izan zuten lortu hirugarren garaipena jarraian. Atsedendira 8-3koarekin erretiratu ziren talde biak.



Javi Beitia



Mikel

Bi jokalar berri areto-foballeko Concepto Egilerentzat

Debabarrena areto-foballeko talde nagusiak jokalar berri bi ekarri ditu taldera: Gasteizko Donga Casualetik datorren Javi Beitia beterranoak hegaleko itxiera postuan jokatzen du eta Gasteizko Atenea taldetik pasatu den Mikel Carretero atezaina da. Euren debutean, gainera, 3-4 irabazi zion Concepto

Egilek Murillo Rio Lezari neurketa borrokaturik: atsedendian banako berdinketa erakusten zuen markagailuak. Domekan partidu ezin interesgarriagoa jokatu da Elgoibarko IMH kiroldegian, 12:30ean iazko liga irabazi zuen Zaragozako Colo Colo izango dute-eta aurrez-aurre.

Kirol-instalazioen zozketa egingo da astelehenean

Abenduaren 14an kirol-instalazioen datorren urterako zozketa egingo da Ipurua kiroldegiko prentsa-gelan. 19:00etan Unbeko tenisa eta foballa zozketatuko dira, Ipu-

rua kiroldegiko squash-a eta areto-foballarekin batera. Ordu laurden geroago, hau da, 19:15ean frontoia zozketatuko da; eta 20:00etan, padelaren txandak zehaztuko dira.

Ipuruako igerilekua itxita zapatu arratsaldean

Igeriketako XXVII. Gabon Kopa jokatu da bihar arratsaldean Ipurua kiroldegian eta, hori dela-eta, igerilekua itxita egongo da 16:00etatik 20:00etara. Lehiaketa urtero egingo da sasoi honetan.



basquestay



www.basquestay.com
info@basquestay.com
606 747 756

Apartamentu baten jabe bazara, errentan eman eta diru iturri bilakatu

Eibar FT-ren martxa ikasgai Nafarroako Unibertsitatean

“Eibar Kasua” unibertsitatean erabiliko da enpresari formakuntzan, “kasuen” eztabaidan oinarritutako ikasketa-metodologiari jarraituz. Hori aipatu zuten eguaztenean Jose Antonio Segarra, Alberto Fernández Terricabras eta Javier Aguirreamalloa IESEko irakasleek. Gure herriko kirol-erakundea sakonki aztertu ondoren, Nafarroako Unibertsitatearen parte den IESE eskolako enpresa- zein kirol-kudeaketan eta erabakiak hartzerako garaian Eibarrek dituen berezitasunak erakutsiko die ikasleei.

Valentzia eta Ponferradina bisitari Ipuruan

Aurreko astea ez zen oso ona izan Mendilibarren mutilentzat, hiru porrot jaso baitzituzten Real Madril, Ponferradina eta Realaren aurkako partiduetan. 2. A mailakoaren aurka jokaturako Kopako partiduen emaitzak (3-0) deitu du atentzio gehien, kanporaketa oso zail laga duelako eibartarrentzat; entrenatzailea bera “kanporaketa bota dugu” esatera ausartu zen. Hala ere, itxaropena ezin da galdu eta emaitza horri buelta emateko asmoz zelairatuko dira gorri-urdinak datorren eguaztenean, 20:00etan, Ipuruan Ponferradinaren aurka. Aurretik, baina, Valentzia hartuko dute domekan, hilaren 13an, arratsaldeko 16:00etan hasiko den neurketan. Saillapenean berdinduta daude talde biak une honetan, 20 punturekin. Valentziak entrenatzailea aldatu du.

lazko partiduan Valentzia nagusitu zen Ipuruan.



Gabonetako Campus-a

SD Eibar Fundazioak campusa antolatu du 9tik 14 urtera arteko neska-mutilentzat. Campus horrek abenduaren 26tik 31ra iraungo du (09:00-13:30 eta 15:00-17:00 egunero) eta matrikularen prezioa 185 eurokoa da. Astelehenean, hilaren 14an, amaituko da izena emateko epea. Informazio gehiago: 667 956 950 telefono-zenbakian.



Urkiko jubenilak garaile, kadeteak galtzaile

Jubeniletako 1. Mailako partiduetan, A taldeak 3-2 irabazi zion Antzuolari, B taldea 1-8 nagusitu zen Arizmendiren zelaian eta, azkenik, C taldeak berdindu egin zuen Ikasberriren etxean. Gazte-agoek ez zuten zorte bera izan eta, horrela, Ohorezko Mailako taldeak 0-3 galdu zuen Unben Ordiziarekin eta 1. Mailakoak 3-1 galdu zuen Mutrikun Burumendirekin.

Gabonetako OTARRA

2.000 €ko balioa duen Otarra

Prezioa: 1€

Zakate 2015eko abenduaren 15an aurrera da

Zbk: Euskara Ekarleia

1€

GAUR (19.00-21.00)
BIHAR (13.00-14.00)
KALEAN EROSTOKO AUKERA

46"ko TELEBISTA eta gabonetako produktuak dituen otarra

SALMENTA LEKUAK

- Korreos bulegoa
- Isasi okindegia
- Arriandi okindegia
- Izadi loradenda
- Mugika harategia
- Kultu taberna
- Etxeto prentsa
- Arriola prentsa
- Maria Ospital (Calbeton)

ETA LEKUAK

- Otegui harategia
- Zubi Gain taberna
- Bolintxo okindegia
- AEK
- Udal Euskaltegia
- San Andres gaztegia
- Zabaleta okindegia
- El Tio Palancas

2.000 euroko Gabonetako OTARRA

FM

Funeraria·Ehortzetxe

Mugica

EIBAR

Beilatokia
Funeuskadi Eibar:
Otaola, 27

ELGOIBAR

Beilatokia:
SIGMA Industrialdea
(Olasoko hilerriaren ondoan)

Bulegoa Eibarko erdialdean

24 orduko zerbitzu iraunkorra

943 20 19 51 | www.funeuskadi.com

Bulegoa Bidebarrieta, 20

Euskadiko Lehen Ehortze Taldea

GRUPO Funeuskadi



Datorren abenduaren 16an, asteazkena, ...eta kitto!n 19:00etan izango den euskal sukaldaritzari buruzko tertulian, Pili Manterola eta Ramon Roteta sukaldari ezagunek Ibon Gaztañazpi kazetariaren galderei erantzuniko diete. Pili Manterola Iribar jatetxeko arduraduna da eta EITB-1eko "Txoriene" sukaldaritzaren programan egindako lanari esker aurpegi ezaguna bihurtu da. Euskadi Irratiko Factoria programan astero kolaborazioa egiten jarraitzen du.

PILI MANTEROLA (sukaldaria): "Emakumea eta euskalduna izateak asko lagundu dit"

- **Gaztea izan arren, sukaldaritzan eskarmentu handia daukazu eta gainera aurpegi eta ahots ezaguna bihurtu zara irrati eta telebistan. Ez da lan erraza izango guztia uztartzea...**

20 urte inguru nituenean, aita hil zenean, hasi nintzen amarekin sukaldetan lan egiten, eta 17 urte burubelarri pasa nituen bertan. Azken zortzi urteetan laguntzaile-bazkide bat daukat, eta horri esker beste gauzak batzuk egiteko aukera daukat: Telebistan "Txoriene" sukaldaritzaren programan egon nintzen eta orain dela 4 urte inguru irradian astean behin jarduten dut. Telebistarena oso esperientzia polita izan da, azken finean nire lanari buruz hitz egiten nuen: beste mundu bat da, ni aurkezle nintzen eta, beste sukaldariekin nengoenez, konplizidatea lortzen genuen berehala. Teknika berri pila bat ikasi nituen, eta gainera, programari esker, nik ere euskarazko hitz berri asko ikasi nituen.

- **Zelan ikusten duzu euskararen egoera sukaldaritzan munduan?**

Geure kasuan, zorte handia daukagu: guztiak euskaldunak gara, parrilleroa eta zerbitzen ibiltzen diren kamarerak euskaldunak dira. Egia da urte batzutan sukaldari erdaldunak izan ditugula, oso zaila izan delako euskaldunak bilatzea. Baina une honetan bi gazte euskaldun ari dira gurekin, eta geure arteko harremanak euskeraz izateak asko pozten eta motibatzen nau. Jatetxeko menua eta kontua ere elebidun daukagu.

- **Sukaldarien artean euskaldun asko dagoela esango zenuke?**

Bai, euskaldun asko dago sukaldeetan, gero kontua da bakoitzak nola maitatzen duen hizkuntza eta nola transmititzen duen. Txoriene telebista-programan 150 saio inguru egin nituen, guztiak sukaldari euskaldunekin, beraz euskaraz hitzegiten duten sukaldari asko daude, zalantzarik gabe. Kostatu egiten zen konbentzitzea, askotan euskaraz jarduteko konplexuak izaten ditugulako. Lehenengo pauso hori ematea izaten zen zailena baina gero primeran egiten zuten! Sukaldaritzako lehenengo mailan gizonetzkoak ikusten ditugu. Niri hor egotea tokatu zait emakumea eta euskalduna naizelako. Adibidez, 4-5 urte daramatzat Euskadi Irratian Arzak jatetxeko Igor Zalakainekin; bien arteko jokoa da, errezeta bat ematen dugu eta jendeak bata ala bestearen aldeko botoa eman behar du.



Tanttakaren "Kreditua"

Tantaka taldearen eskutik datorren martitzenean euskerazko antzerkiaren gozatzeko aukera izango da Coliseoan, 20:00etan hasiko den "Kreditua" lanarekin. Fernando Bernués-ek zuzendutako antzezlanean Joseba Apaolaza eta Zuhaitz Gurrutxaga antzezleek jardungo dute taula gainean, bankuko kredituaren aitzakiarekin lana ikustera gerturatzen direnei barrea eragiteko ahalegina egiten. Sarrerak 8 euro balio du.

Deporreko argazkilarien lanak

Urteroko moduan, Eibarko Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldekoek erakusketa kolektiboa egingo dute Portalean gabonren bueltan. Gaurtik aurrera eta urtarrilaren 11ra arte Oscar Baglietto, Jose Vila, Jose Luis Irigoien, Pedro Arriola, Jose Ignacio de Castro, Bakarne Elejalde, Jose Valderrey, Juan Antonio Palacios, Enrique Lorenzo, Iñaki Campos, Zigor Astigarraga, Manuel Sanchez, Fernando Retolaza, Juan Manuel Lucena, Enrique Albistegi, Fernando Alonso, Virginia Arakistain, Einer Rodriguez, Jon Jimenez, Juan Ignacio Aizpurua eta Mikel Urionaguena, Deporreko argazkilarien lanak ikusteko aukera egongo da Portaleko erakusketa aretoan, martitzenetik domekara, 18:30etik 20:30era.



Durangaldeko artisten lanak

Gaur 19:00etan zabalduko dute Portalean Durangaldeko Artisten Elkarteak urtero gurean egiten duen erakusketa. 25 urteotako ibilbidean hamaika artista batu ditu elkarteak eta diotenez, "gaur egun gure lehentasuna teknika eta proiektu berritzaileak dituzten gazteei lekua egitea da, erreleboari esker elkartearen bizi-raupena ziurtatzeko". Urtarrilaren 10era arte egongo da erakusketa bisitatzeko aukera, martitzenetik domekara bitartean, 18:30etik 20:30era.

Mursegoren musika umeentzat bereziki

Bihar, 17:00etatik aurrera, "Mursego umeentzat" izenburuari jarraituta emanaldia eskainiko du Maite Arroitauregi musikariak Coliseoan, bereziki umeentzat pentsatutako kontzertuan. Gasteizko Goi Mailako Musika Eskolan biolontxeloan lizentziatua den mu-



sikari eibartarrak dioenez, "betidanik gustatu izan zait musika sortzea, baina partituretatik aparte, nire bame-baitan dagoenari kanporako bideak irekiz". Luzaroan talde askorekin (Gora Japon, Napoka Iria, Kokein, Miztura, Lisabö, Kashbad, Anari, Manett...) kolaboratzen ibili eta gero, 2009an ekin zion bakarkako ibilbideari eta bere musika maila gorenera ailegatzea lortu du: "Loop pedala daukat lagun, eta hari geruzak gehitzen dizkiot, armonia ezberdinak sortu ahal izateko. Horretarako ahotsaz baliatzen naiz, edo casio teklatura, oukalele, autoarpa edo marakak, besteak beste, erabiltzen ditut". Dantzarako, ikus-entzunezko lanetarako zein filmetarako musika ere konposatzen du eta bihar umeentzat bereziki eskainiko duen emanaldirako sarrerak 5 euro balio du.

Astelenako bi bertsolari finalean

Jon Maia nagusitu zen domekan Eibarren, Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako azken finalaurreko saioan 500'5 puntu lortu eta gero; bere atzetik Arkaitz Oiartzabal "Xamoa" eta Nahikari Gabilondo bigarren eta hirugarren izan ziren, hurrenez hurren. Astelena frontoira 1.100 bertsozale inguru bildu ziren eta, saioa amaituta, Ilunben abenduaren 19an 17:00etan egingo den finaleko parte-hartzaileak zehaztuta geratu ziren: finalaurreko saioetan nagusitu ondoren zuzenean sailkatutako Alaia Martin, Unai Agirre eta Jon Maia bertsolariekin batera, bildutako puntuazioari esker sailkatu diren Beñat Gaztelumendi, Agin Laburu, Iñaki Apalategi, Oihana Iguaran eta Arkaitz Oiartzabal "Xamoa". Finalerako sarrerak www.bertsosarrerak.eus atarian eros daitezke (bazkideek 15 eurotan, 6 eta 16 urte bitartekoek 10 eurotan eta gainerakoek 20 eurotan).



Jon Maiak irabazi zuen saioa.
ALBERTO ELOSEGI

Kultura merkeago gozatzeko bonuak

Abantaila ugariarekin kulturaz gozatzeko aukera ematen duten "Kaixo Kultura" eta "Zatoz Antzokira" bonuak aurkeztu zituzten Maria José Telleria Foru Aldundiko Kultura zuzendariak eta Patxi Lejardi Kultura eta Euskara zinegotziak astelehenean. Azaldu zutenenez, "Gipuzkoa osorako 7.000 bonu atera ditugu eta Eibarren 230 ipini dira salgai. Horiek erabilita, liburuak zein diskoak 10 euroko deskontuarekin eros daitezke eta Coliseoko ikuskizunetarako sarreretan, berriz, 15 euroko deskontua aplikatuko da".

Bonuen salmenta ahalik eta gehien erraztearren, oraingoan salmenta zuzena egitea erabaki dute eta Eibarren ekime-narekin bat egin duten dendetan, El Cor-

te Inglesean eta Yraolagoitia liburutegian eros daitezke liburu eta diskoak erosteko balio duten bonuak; ikuskizunetarako bonuen salmenta, berriz, Coliseoan hasi zen eguaztenean eta gaur izango da erosteko azken eguna, Coliseoko leihatilan 18:00etatik 20:00etara.

Liburuak zein DVD-ak erosteko balio duen bonuari esker, 20 euro ordainduta 30 euro gastatu daitezke. Eta Coliseoan eskainiko diren ikuskizunetara sartzeko bonuak, berriz, 25 euro balio du eta sarreretan 40 euroko balioa gastatzeko aukera ematen du. Bonuak apirilaren 15era arte erabili daitezke (bes-



teak beste, Antzerki Jardunaldietan eskainiko diren lanetarako baliagarriak izango dira). Informazio gehiagorako www.kulturklik.com edo www.eskena.com helbideetan begiratu daitezke.

laburrak

KALEJIRA KANTUAN

Hileroko martxan, bihar 19:45ean kalejiran irtengo dira Kaleetan Kantuz taldekoak, Untzagatik abiatuta eta Musika Eskolako trikitilariak lagunduta.

EIBAR-SAHARA AZOKA

Asteburuan erabilitako liburuen azoka egingo dute Untzagan Eibar-Sahara Elkartekoek, urtean zehar egiten dituzten jardueretarako dirua batzeko asmoz. Zapatuan eta domekan zabalduko dute azoka, 11:30etik 19:00etara.

www.etakitto.eus

WEB berria

WEB ETA ASTEKARI BERRITUAK

Datorren asteko eguenean (abenduaren 17an) [etakitto.eus](http://www.etakitto.eus) webgune berriaren eta aldizkariaren diseinu berrituaren aurkezpen-ekitaldia egingo da, 19:00etan hasita, ...eta kitto! Euskara Elkartearen egoitzan (Urkizu, 11 solairuarekin). ...eta kitto!-ko bazkide zein herritar guztientzat ekitaldi irekia izango da



Egun osorako egitaraua prestatu zuen Eibarko euskalgintzak aurreko asteko egunean ospatu zen Euskeraren Egunerako. Goizeko 10:00etatik arratsaldeko 15:00ak arte 300 ikasletik gora jardun zuten Untzagako Mintzodromoan, eta 18:00etatik aurrera, ekitaldi irekian, zumba-saioarekin dantza, euskeraren aldeko mezuak irakurri eta horma-irudietan idatzi, eta 500 globo lau haizetara askatu ziren. Ea egun horretakoa urteko 365era zabaltzen dugun!



...eta euskara Eibartik mundura aireratu zen



laztanak emoten...

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, AINHOA Egurrrola, hillaren 4an sei urte egin zenduaz-en-eta. Muxu haundi bat gure printzesarentzat etxekuen partez.



Zorionak, AMAIUR, martitzenia zortzi urte bete zenduaz-en-eta. Muxu potolo bat famelixa guztiaren partez.




Zorionak, JUNE Alkorta, hillaren 7xan sei urte egin zenduaz-en-eta. Patxo haundi bat famelixaren eta, batez be, Garaziren partez.



Zorionak, NORA, gure etxeko printzesak bixar hiru urte beteko ditte-eta. Muxu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, ARRATE, zortzi urte be egin dozuz-eta. Famelixa guztiaren eta, batez be, zure ahizta Mirenen partez.



Zorionak, JUNE, atzo bederatzita urte egin zenduaz-en-eta. Etxekuen eta, batez be, Mikel zure nebaren partez.



Zorionak, ZALOA, gure etxeko larrosak atzo urtiak egin zittuan-eta. 9 patxo haundi etxekuen partez.



Zorionak, ALBA, bixar hamabi urte egingo dozuzelako. Muxu haundi bat famelixa guztiaren partez.




Zorionak, MIREN, gaur lau urte egitten dozuz-eta. Patxo haundi bat etxeko guztien partez.




Zorionak, JULEN, astelehenian zure eguna izango dalako. Ondo-ondo pasau, zure lehengusuen eta osaba-izeben partez.




Zorionak, amama IZASKUN eta aititxa XABIER, zuen urtebetetzietan. Patxo potolua zuen famelixaren eta, batez be, Danel eta Zalao billoben partez.



Zorionak, IRAI, txapeldun! Segi holan, beti bezain irribarretsu! Muxu bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, OLATZ, gaur 12 urte egitten dozuzelako. Etxekuen partetik.



Zorionak, PATXI eta JONE, zuen urtiak dirala-eta. Bikote edarra osatzen dozue! Patxo erraldoi bana famelixa guztiaren eta, batez be, aitatxo eta amatxoren partez. Muuuuuuu!



Munduko ahizparik onenak domekan zortzi urte beteko ditte. Zorionak, MADDI, eta patxo pillua NAIaren eta famelixa guztiaren partez. Muuuuuuu!

zinea Coliseoan

(1 ARETOAN)
12an: 17.00, 19.45, 22.30
13an: 17.00, 20.00
14an: 20.30

“Techo y comida”
 Zuzendaria: J.M. Del Castillo



(2 ARETOAN)
12an: 19.45 (2 ARETOAN), 22.30
13an: 17.00, 20.00
14an: 20.30

“Ocho apellidos catalanes”
 Zuzendaria: Emilio M. Lazaro




(ANTZOKIAN)
12an: 22.30
13an: 17.00, 20.00
14an: 20.30

“El puente de los espías”
 Zuzendaria: Steven Spielberg



(2 ARETOAN)
12an: 17.00
(ANTZOKIAN)
13an: 17.00

“El viaje de Arlo”
 Zuzendaria: Peter Sorin



BARIXAKUA 11

INAUGURAZIOA

19:00. Klub Deportiboko argazki-taldearen eta Durangaldeko Artisten Elkartearen erakusketak zabalduko da. Portalean.

ZAPATUA 12

KROMO-BILDUMA

10:00/14:00. "Eibar 75 urte" kromo-bilduma salgai ipiniko dute. Untzagan.

EIBAR-SAHARA

11:30/19:00. Erabilitako liburuen azoka, Eibar-Sahara Elkartearen eskutik. Untzagan.

PAILAZOAK

16:30 eta 19:00. "Amalur", Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoan ikuskizun berria. Hezkuntza Esparruan.

MUSIKA

17:00. Mursego umeentzat. 5 euro. Coliseoan.

KIROLA FAMILIAN

17:30. 2-5 urteko haurrak dituzten familiendako. Ipuruia kiroldegian (beheko kantxan).

ANTZERKIA

18:00. "Urtaroak Vivaldiren begietatik" umeendako lana (antzerki beltza). El Corte Inglesean (ekitaldi aretoan)

PALESTINAREN ALDE

18:00/20:00. Argazki eta bideo erakusketa eta eskolarako materialaren salmenta. Herri Palestinarrari Laguntzeko Komiteak antolatuta. Untzaga plazan.

KALEETAN KANTUZ

19:45. Abesbatzaren kalejira, Musika Eskolako trikitilariekin. Untzagatik abiatuta.

DOMEKA 13

AURKEZPENA

11:30. Akondiako bando errepublikarraren ametralladora-kabiaren erreplikaren aurkezpena. Gerra Zibileko Eibarko Fronteari buruzko interpretazio zentroan. Arrateko aterpetxean.



EIBAR-SAHARA

11:30/19:00. Erabilitako liburuen azoka, Eibar-Sahara Elkartearen eskutik. Untzagan.

KONTZERTUA

12:30. Cielito Musika Bandaren Gabonetako kontzertua. Coliseoan.

PAILAZOAK

16:00 eta 18:30. "Amalur", Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoan ikuskizun berria. Hezkuntza Esparruan.

KIROLA FAMILIAN

17:30. 2-5 urteko haurrak dituzten familiendako. Ipuruia kiroldegian (beheko kantxan).

ASTELEHENA 14

IKASTEN

16:00. Sendabelarren Foroa: espasmoen kontrako landareak. Portalean.

MARTITZENA 15

IKASTEN

10:00. "Tentsio arteriala" hitzaldia, Pedro Ayerbe Leioako Medikuntza Fakultateko irakasle eta Basurtuko Ospitaleko Kardiologoaren eskutik. Armeria Eskolan.

IKASTEN

16:00. Puntu-tailerra (19:00ak arte).
17:00. Joskintza (20:00ak arte). Portalean.

IRAKURKETA KLUBA

19:00. Helduen gaztelerazko irakurketa kluba: "Limónov" (Emmanuel Carrère). Portalean (ikastaro gelan).

ANTZERKIA

20:00. "Kreditua" antzezlan (Tanttaka Teatro). 8 euro. Coliseoan.



EGUAZTENA 16

IKASTEN

09:50. Mendi-ibilaldia: Gazteiz-Salburua (Buesa Arenatik). Bazkaria eraman. Irteera Ego Gaingo geltokitik (autobus zerbitzu zuzena).

HITZALDIA

19:00. "Sukaldaritza gertu-gertutik" hitzaldia, Ramon Roteta eta Pili Manterolaren eskutik. Elkarrizketatzailea: Ibon Gaztañazpi kazetaria. ...eta kitto! Euskara Elkartearen (Urkizu, 11 solairuaratean).

HITZALDIA

19:00. "La alianza occidental para la guerra. Refugiados y derechos de asilo". Ez gure izenean - No en nuestro nombre-k antolatuta. Arrate Kultur Elkartearen.

KONTZERTUA

19:00. Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako Gabonetako kontzertua. 3 euro. Coliseoan.

EIBARKO KANTUZALEAK

19:00. Abesbatzaren entsegu. San Andres elizako lokalean.

EGUENA 17

IKASTEN

10:00. "Buru Ekologia. Bizitzaren aurrean jarrera bat" hitzaldia (2. atala), Adindu elkartearen eskutik. Armeria Eskolan.

AURKEZPENA

19:00. etakitto.eus webgune berriaren eta aldizkariaren diseinu berriaren aurkezpen-ekitaldia. ...eta kitto! Euskara Elkartearen (Urkizu, 11 solairuaratean).

KALEETAN KANTUZ

19:30. Abesbatzaren entsegu. San Andres elizako lokalean.

hildakoak

- Jose Manuel Gomez Fernandez. 65 urte. 2015-XII-7.

jaiotakoak

- Nayra Etxeberria Padilla. 2015-XI-29.
- Elias Abainou. 2015-XI-30.
- Carla Puga De la Torre. 2015-XII-2.
- Maher Kabass Berghout. 2015-XII-4.

erakusketak

✓ **Abenduaren 13ra arte**

“EIBAR 75 URTE KROMO BILDUMA” erakusketa. Untzagako Jubilatu Etxean.
VICENTE IRIONDOREN margo-erakusketa. Lobiano Kultur Gunean (ERMUAN).

✓ **Urtarrilaren 10era arte**

EIBARKO KLUB DEPORTIBOKO ARGAZKI-TALDEAREN erakusketa. Portalean.
DURANGALDEKO ARTISTEN ELKARTEAREN erakusketa. Portalean.

✓ **2016ko abendura arte**

JUAN LUIS APRAIZEN arma-bilduma. Armagintzaren Museoan (Portalean).

lehiaketak

✓ **Tripontziak Lehiaketa**

Noiz eta non: abenduaren 15era arte, Debarreneko Klub Gastronomikoko 11 establezimendutan. Eskaintza bereziak menu, pintxo eta egonaldietan.
Informazio gehiago: www.debarrenaturismo.com/eu/gastronomia webgunean.

✓ **“Aratosteak Eibarren” Kartel Lehiaketa**

Lanak aurkeztea eta informazioa: **Urtarrilaren 12ra arte**, Pegoran.


ikastaroak

✓ **Argazkilaritza (oinarrizkoa)**

Noiz eta non: Urtarrilaren 11, 13, 18, 20, 25 eta 27an (astelehen/eguztinetan), 19:30etik 21:30era, Arrate Kultur Elkartearen. Irakaslea: Jose Luis Irigoien.
Izen-ematea eta informazioa: Arrate Kultur Elkartearen bulegoan, 943202299 telefonoan edo arratekultu@gmail.com helbidean (25 euro bazkideek, 30 euro bazkide ez direnek).

telefono jakingarriak

SOS deiak.....	112
Pegora.....	010
Udaletxea.....	943 70 84 00
Portalea.....	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea.....	943 70 07 99
Debegesa.....	943 82 01 10
KIUB.....	943 20 38 43
Epaitegia.....	943 03 34 00
Iberdrola.....	901 20 20 20
Naturgas.....	902 12 34 56
DYA Larrialdiak.....	943 46 46 22
Gurutze Gorria.....	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulatorioa.....	943 03 25 00
Torrekua.....	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza.....	943 53 17 00
Eusko Tren.....	902 54 32 10
Lurraldebus.....	943 00 01 17
Pesa.....	900 10 14 00
Taxiak.....	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon.....	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen.....	650 26 59 63



S U D O K U A

	9		7			
	5		2			1
			5	8	2	9
		4		5	2	
5			3			6
1		7		9		
6	8	2	5			
9		3				5
			2			9

4	7	5	6	1	9	2	3	8
9	8	3	5	7	2	6	1	4
1	6	2	3	8	4	7	9	5
2	4	7	1	5	3	9	8	6
3	5	6	8	9	7	1	4	2
8	1	9	4	2	6	3	5	7
5	3	8	7	6	1	4	2	9
6	2	1	9	4	8	5	7	3
7	9	4	2	3	5	8	6	1

AURREKOEN EMATZA

farmaziak

- ✓ **barixakua 11**
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
- ✓ **zapatea 12**
EGUNEZ **Larramendi** (Calbeton, 19)
- ✓ **domeka 13**
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- ✓ **astelehena 14**
EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
- ✓ **martitzena 15**
EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
- ✓ **eguztina 16**
EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
- ✓ **eguna 17**
EGUNEZ **Castaño** (J. Etxebarria, 7)
- ✓ **barixakua 18**
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)

GAUEZ BETI
Elorza (J. Gisasola, 18)

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

– Pisua salgai San Vicente de la Sonsierran (Errioxa). 4 logela, egongela, sukaldea, bi koma eta ganbara. Tel. 615-759399.

1.2. Errentan

– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 689-571882.
– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 697-754174.
– Pisua alokagai Txonta kalean. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Tel. 609-175333.

3. Lokalak

3.1. Salgai

– Garaje itxia salgai Matsarian. 21.000 euro. Tel. 661-377537.
– Martxan dagoen taberna traspasatzen da Isasi kalean. Bezero finkoekin. Prezio interesgarria. Tel. 695-711730.

3.2. Errentan

– Martxan dagoen ileapaindegia alokatzen da Eibarren. Prezio interesgarria. Tel. 679-425467.

4. Lana

4.1. Lan bila

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko urtariletik aurrera. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 631-506763.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketara lanak egiteko. Erreferentziak. Tel. 677-736060.
– Neska eskaintzen da arratsaldez edo gauz ordutako nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Gidatzeko kamarekin. Tel. 631-343232.
– Neska euskalduna eskaintzen da pegorak garbitzeko. Tel. 617-571210.
– Emakume arduratsua eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta pegorak garbitzeko. Esperientzia. Tel. 653-010861.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira:
Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro.
Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

– Neska eskaintzen da garbiketara egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka. Tel. 697-891070.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 634-748531.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta tabernan lan egiteko. Tel. 631-962653.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko urtariletik aurrera. Interna. Tel. 631-062022.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, etxeko lanak egiteko eta pegorak garbitzeko. Tel. 662-430951.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita ospitalean ere. Interna. Tel. 632-408771.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita ospitalean ere. Interna. Tel. 628-014327.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Baita gauz edo asteburuetan ere. Tel. 693-232959.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Erreferentziak. Tel. 602-172993.
– Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita gauz edo asteburuetan ere. Orduka. Tel. 679-910991.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketara lanak egiteko. Baita gauz ere. Tel. 632-771519.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 629-817299.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Baita asteburuetan ere. Tel. 631-425686. Laura.

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Esperientziarekin. Tel. 652-683273.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Geriatria formazioa eta esperientziarekin. Tel. 686-561811.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Pediatria eta Geriatria formazioarekin. Tel. 608-341064.
– Mutila eskaintzen da sukalde-laguntzaile moduan, dendarri jarduteko eta garbiketara egiteko. Tel. 674-724072.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan eta gauz ere. Tel. 682-277198.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita gauz ere. Esperientziarekin. Berehala hasteko moduan. Tel. 633-808931.
– Neska eskaintzen da garbiketara egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 688-820508.

4.2. Langile bila

– Pertsona behar da astero goiz batean mugikortasun arazoak dituen emakume bati enkarguak egiten laguntzeko. Ezinbestekoa da autoa izatea. Tel. 943-202030.
– Ileapaintzailea behar da. Tel. 619-928881.
– Kamarera/o behar da asteburuetarako Eibarko taberna batean. Bidalitako curriculum-a. ofertaempleo.bar.eibar@gmail.com

5. Irakaskuntza

5.1. Eskaerak

– Matematikako irakaslea behar da Batxilergo 1. mailako ikasle bati klaseak etxean emateko. Tel. 669-293462.

5.2. Eskaintzak

– DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak etabarretako klaseak ematen dira. 1 eta 3 ikasleko taldeak. Tel. 677-592509. Alberto.

6. Denetarik

6.1. Salgai

– Egongelako alfonbra salgai. Egoera eta prezio onean. Tel. 606-882043.
– Ohe artikulatua salgai (1'05x2 m). Tel. 649-605857.
– Apal metalizatuak salgai, erroberekin. Neuri guztietakoak. Oso merke. Tel. 688-678934.

6.2. Eman

– Mendiko bizikleta oparitzen dut. Tel. 666-444074.

6.3. Galdu/Aurkitu

– Arraten betaurrekoak topatu nituen kuadro-dun (zuri-beltzak) funda batean eta Udaltzaingoan laga ditut. Tel. 943-708424.
– Eguazten goizean (07:30 inguruan) motxila urdina galdu nuen Untzagako Jubilatutako Etxeko arkupe inguruan. Eskolako materiala, betaurrekoak eta dokumentazioa zuen karteratxo zegoen barruan. Tel. 616-480865.

6.4. Bestelakoak

– Elkarte gastronomiko bateko kide izan nahiko nuke. Tel. 635-206864.
– Elkarte gastronomiko bateko kidea izatea nahiko nuke eta aukera desberdinak ikustea. Tel. 667-516350.

Logopedak

AHOTS-LAN
LOGOPEDIA-PSIKOLOGIA



Isasi, 17 - 1. esk.
943 202691
ahotslan@gmail.com

Diagnostikoa eta tratamendua

Degluzio atipikoa	Arreta arazoak
Disfonia	Berba arazoak
Ikaste-arazoak	Dislexia

LEHENENGO KONTSULTA DOAN



BIDEBARRIETA, 48
EIBAR
943 203050

ERDIKO KALE 54
ARRASATE
943 799746

PODOLOGOA
Erdiko klinika

Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)



Arantza Alvarez
Psikologoa-Sexologoa
1517 - GZ Kol. zkia.

www.centrodesexologia.com
Tfnoa. 645 73 23 88

KONTSULTAK: Eibar / Durango / Donostia

Okulistikak




Oftalmologoak
Centro de Oftalmología Avanzada

JOSE ALBERDI
ARRATSALDEZ

San Juan 11 - solainurtea
943 20 19 82

Oftalmologoak
Centro de Oftalmología Avanzada



PODOLOGOA

Maidier Lopez Etxeberria

Arragueta 2 Bis-B, Behea C
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.

AROR
PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA

(Ume eta helduendako)

Ana Artamendi

- Afasiak
- Dislexiak
- Disfoniak
- Hizmoteltasuna
- Dislaliak
- Eskola arazoak
- Degluzio atipikoa

T. Etxebarria, 10 - 6. ezk. (EIBAR)
Tel. 943 20 27 15 / 670 82 43 27



Recalde
Clínica Oftalmológica
Oftalmologi Klinika

• **Miopia ebakuntzak**
(femtosegundoko laserrarekin)

R.P.S. 234/13



Plaza Barria 2. 2º. Tel.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com



PODOLOGO
T. ORTOPEDICO

Iñaki Rivero Zabaleta

Calbeton, 4 - 2.
(Untzagako dorrea)

Tel. 943 20 86 41



PSIKOTERAPIA ZENTRUA

HAUR, NERABE ETA HELDUENTZAKO PSIKOTERAPIA

943 20 22 66
Bidebarrieta, 27-B, 1º 3 atea
www.arratepsicoterapia.com

Lorena Izaguirre Garcia
PSIKOLOGOA-PSIKOTERAPEUTA

Errebal, 15 - 1. ezk.EIBAR
Zuberoa, 4ZARAUZ
Tel. 943 831 618

Podologoak

- Kiropodiak, gogortasunak eta kailuak
- Atzazkal orbainduak
- Oinazpiko garatxoak (papilomak)
- Plantillak digitalizatua (scanner bidezko inpresioa)



ELENA AIZPUN
PODOLOGOA
124 kolegiatu zenbakia

T. Etxebarria (DOS DE MAYO), 5 - 1. A
943 12 14 93 / 696 555 208

Psikologoak



AMETS
PSIKOLOGIA KLINIKOA
ETA OSASUN ZENTROA

BIDEBARRIETA, 27 - B, 1. solairua, 9. bulegoa
www.centroamets.com

Coro Ortíz de Urbina
PSIKOLOGOA (G201987 kolegiatua)

- Masterra Praktika Klinikoan
- Master P.N.L.
- Trainer

Tel. 675 70 68 07

Maialen Hernandez
PSIKOPEDAGOGOA

- Lengoiaia trastornoak
- Hiperaktibitatea
- Gizarteratze arazoak
- Autoestima arazoak
- Autoestima arazoak
- Dislexia

Tel. 605 75 75 06

Psikologia klinika eta
Psikoterapia zentroa



Oscar Mondragon Lili
GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ
Urkizu, 13 - behea
Telf. 943206823 eta 686859023



POLICLINICA GIPUZKOA

*Zure osasuna
berreskuratu,
zure bizitza
berreskuratu*

**OBESITATE MORBIDOAREN
KIRURGIA ETA
KIRURGIA METABOLIKOA**

Taldea osatzen dute:

Jose M^º Enriquez-Navascues

Jose Luis Elozegi eta Javier Murgoitio

Digestio-Aparatuko zirujauak

Juan Ignacio Arenas

Digestio Aparatuan espezialista

Eva Blazquez

Endokrinologoa

Eider Sanchez

Nutrizionista

Susana Gonzalez

Psikologoa

**INFORMATU
KONPROMISORIK
GABE**

Gutxieneko inbasio kirurgiaren
teknika laparoskopikoekin.

Kasuen %90etan euren gehiegizko
pisuaren %50 galtzen dute.



POLICLINICA GIPUZKOA

**DIGESTIO-GAIXOTASUNEN
UNITATEA**

943 00 09 36

www.policlinicagipuzkoa.com

